

**Tindufeko errefuxiatuen kanpamenduetako minusbaliatuentzako laguntza, gorrak edo garuneko paralisia duen biztanleriari lehentasunezko arreta emateko.**

---

<b>Tokia:</b> Argelia (Tinduf) Saharaiuen Errefuxiatuen kanpamenduak	<b>Bertako erakundea:</b> Asociación Getxo Pro-Sahara "ATFAL"
<b>Eremua:</b> Emakumea eta Hezkuntza	<b>Eskatutakoa:</b> 2.000 €

---

**Egitasmoa aurkezten duen bertako erakundea**

Getxo Pro-Sahara "ATFAL" elkarteak 1.997. urtean eratu zen eta horrez geroztik "Frente Polisario" k eta Saharako Emakumeen Nazio Batasunak egindako eskakizunei oihartzuna egiten die, proiektu anitzak sostengatuz; haien artean, Minusbaliatuen Zentroak artatzeko emakume saharaiuen formazioa, 2003. urtean amaitu zena. Honen jarraipena gisa, 2005. urtean proiektu baten lehenengo faseari hasiera eman genion, urte hauetan zehar jarraipena izan duena gaur arte. Formazio proiektu hau zentroetako hezitzaile, gizarte laguntzaile eta garuneko paralisia duten seme-alabak dituzten familiengana zuzenduta dago, baita zentroen ekipamendura ere, Wilaya bakoitzean, Saharako familiei eta zentroetako hezitzaileen eskaerei erantzun aldera, zeinek egun Emakumearen Sustapena eta Gizarte Laguntzarako Estatu Idazkaritzaren ardurapean dauden. Honez gain, gorrei zuzendutako proiektu baten garapena Minusbaliatuen Zentroetako Koordinatzailea den Mohamed Salem-en laguntzarekin kontatzen da.

Garapen egokia lortzeko asmoz, harreman jarraituak mantendu dira Euskal Herriko RASDko Delegazioarekin baita Emakumearen Sustapena eta Gizarte Laguntzarako Estatu Idazkaritzarekin ere, haien arduradunen bitartez, eta era berean kooperatzaileekin, hezkuntza bereziko elkarteekin eta minusbaliatuen munduarekin erlazionatutako espezialistekin.

**Zertan datza proiektuak**

1. ATALA: Gorrak edota garuneko paralisia duten umeei lehentasunezko arreta ematen jarraitzea, baita hauen familiei, hezitzaile eta gizarte zerbitzuetako laguntzaileei ere. Hau dena material didaktikoaren eta botiken eta garbiketarako materialaren bidalketarekin eta gure kooperatzaileen laguntzaz kanpamendu desberdinetan, Minusbaliatuen Zentroetako arduradunaren koordinazioaz. Geletan begirale gorrekin lan saioak egingo dira, bere irudia indartuz eta gorrak diren pertsonen zuzendutako gelako hezkuntza programak garatzen lagunduz, eta garuneko paralisidun umeen familiei bisitak egingo dira, haien jarraipena eta ebaluazioa burutzeko. Era berean gizarte-laguntzaile eta hezitzaileen artean esperientziak eta formazioa elkartrukatzeko saioak antolatuko dira, kasuak aztertuz eta ezgaitasun desberdinen ezaugarriak eta egoerak ikasiz.

**Onura zuzena**

Batez ere ezgaitasunak dituzten Saharako haur eta nerabe biztanleriari zuzenduta dago eta hauen familiei. Emakume hezitzaile eta gizarte laguntzaileei ere onura ematen die, minusbaliatuen arretaz daukaten formazioa hobetzen baitute.

**Zeharkako onura**

Saharako Herri osoa, bereziki emakumeak, zeinek bere beharrak beteta izango dituzten eta haien seme-alabak eramateko behar duten jakintza maila hobetuko duten, haien bizi kalitatearen onurako.

**Aurkeztutako aurrekontua**

Osasun eta hezkuntza materialen  
ekipamendurako

2.000 €

**Harremanak eta jarraipena**

**Bertako arduraduna:** Maite Fernández. Caridad, 1 48991 Getxo, 658.751.359, email: atfalgetxo@gmail.com

**Jarraipena:** Asociación Getxo Pro-Sahara "ATFAL" Aransgi-ren aholkularitzaz , eta kontrapartearen aldetik: R.A.S.D. ekoEmakumearen Sustapena eta Gizarte Laguntzarako Estatu Idazkaritza eta Mohamed Salem (R.A.S.D.eko Minusbalituen Zentroetako Arduraduna).